EUSKAL HERRIA GIZALDI BAT AURRETIK MARIA SORTZEZ-GARBIA DOGMAREN ESKE. ERREPORTAI DOKUMENTALA

Sarrera

Vaticanoko San Pedro basilikan, 1854ko Abenduaren 8ko goiz batez, Pio IX Aita Santuak zera azaldu zuen eliza unibertsalarentzat: Maria, sortu zen lehen momentutik bai jatorrizko eta bai pekatu pertsonaletatik at zegoela. Elizan gizaldi eta gizaldietan biziriko sinismen luze baten fruitua zen eta egun horretan heltzen da bere heldutasun osora. Gertaera hau zela eta ez zela, Euskal Herrian poz handia nabaritu zen. Mariaren handitasun guztiak eta bereganako maitasunezko debozio guztiek ere Theotokos (Jainkoaren ama) izan dute iturri eta oinarri.

Hain zuzen ere Euskal Herria XII. mendean, eta batez ere Nafarroa aldean, Inmaculadaren festa ospatzen zen lehen leku bezala ezagutzen da eta ez Euskal Herri mailan bakarrik, penintsula mailan baino. 1854raino Inmaculada Birjinaren baieztapenaren historia oso luzea izan da, ama baten begirunearen historia luzea; Jainko-gizona den Jesusen ama: Maria; bere semeak aurrera eramandako salbamenaren historian parte hartu zuen emakumea.

Kalagurritar «euskaldun» bat, Aurelio Prudencio (348-405), Maria Birjinari himnoak eskeini dizkionetariko Penintsulako lehena edo zaharrena eta ospetsuenetarikoa izatea ere datu adie-

razgarria dela deritzat:

Sentisne, Virgo nobilis,
matura per fastidia
pudoris intactum decus
honore partus crescere?

O quanta rerum gaudia
alvus pudica continet
ex qua novellum saeculum
procedit et lux aurea

Ikus ere beste oneik:

Auctor et ipse doli coluber
plectitur improbus, ut mulier
colla trilinguia calce terat.

Fit caro vivida sermo Patris,
numine quem rutilante gravis
non talamo neque iure tori
nec genialibus inlecebris
intemerata puella parit.

Edere namque Deum merita
omnia virgo venena domat,
tractibus anguis inexplicitis
virus inerme piger revomit
gramine concolor in viridi.

Oar bai ete, Birjina guren!
zeure haur-astun betean,
lotsaren eder iku gabean
erai-omenez gehiago azten?

Mundu osoa pozetan dago
errai garbiak dauken eukiaz!
Hortik bai dator argi zuria,
eta gizaldi ziñaz berria!

Gaitz-egille dan suge maltzurra
makur daukazu emakumeak
zapal dezaion irukoitz zintzur.

Aitaren Itza aragi bizi
egin du Birjin iku gabeak,
ez eztaiz ez ezkontza-ogez,
ez aragizko irrits labanez:
goitar indarrak izar du biur.

Jainkoa beraz erditzearren,
pozoi guztiak ezten neskatxak,
ta kiribildun suge biurrak
bere pozoia aul du okatzen
suge-margozko belar berdean.

Baieztatze garrantsitzua: *Omnia* (danak,...) *virgo venena domat*

122 urte aurretik: Euskal Herria sortzez-garbi dogmaren eske

Aita Santua Mariatar dogma hauen azalpena egitera mugi-arazi eta adorea emateko saiaketa batetan, 1732an Espainiako erreinuan eskutitz batzuk bildu ziren, azalpen hau eskatzen zutelarik: erregearengandik hasi eta estamentu guztiak, diputazioak,



Iruiñako Gotzaina

hiri-unibertsitateak, gotzainak, kabildo katedralizioak, ordena erlijiosoak, monastegi garrantzitsuak, etab. Eta Euskal Herriak guzti honetan parte hartu zuen.

Dokumentu hauek ez dira ia ezagutu ere egiten. A. Mañaricua-k Vaticanoko artxibotan gordetzen den bere 1954ko *«La Inmaculada en Vizcaya»* (176. orr.) liburuan, beste autore batengandik eskuizkribu lodikote bi osatzen duten dokumentu hauen existentziaz ohartzen da.



Bizkaiko Aldundia

Nere ikerketa bidaietariko batetan, Euskal Herrian eginikako hainbat eskutitz-eskarien fotokopia bildu nituen artxibu honetan.

Baina guzti honen aurretik, E.J. Labayru-k *(Historia general del Señorío de Vizcaya,* VI, 770. orr.) 1732ko Irailaren 24an Bizkaiko jaurgoari bidalitako agiri erreal bat argitaratzen du. Agiri honetan Aita Santuari Inmaculadaren definizioa eskatzeko agertzen zaio Bizkaiko jaurgoari; erregeari eta Aita Santuari zuzenduriko eskutitzak ere argitaratzen ditu (180-181. orr.).

«Karmel» orrialde hauetan Euskal Herritik joan eta Aita Santuari zuzendutakoak zeintzuk izan ziren adierazi nahi dut bakarrik: erreportaia historiko baten antzera labur-labur egingo dut, beren idatzi, sinadurak, etab. erakutsiz.

Bizkaia

Esan dugun bezala, Bizkaiko Gobernuak, kristau herriaren kontsolamendu espiritualarentzako, 1732ko Urriaren 19an Aita Santuari idatzi zion Maria Inmaculadaren azalpena eskatuz.

«Acuerdos y Decretos del Señorío» -tik Labayru-k harturiko

testuaren eta Vaticanoko artxiboan gordetzen den eskutitz orijinalaren artean badaude zenbait ezberdintasun. Dokumentua sinatzen dutenen artean honako hauek daude: Fernando Cayetano de Barrenechea eta Domingo del Barco diputatuak eta Manuel de Bolivar idazkari bezala.



Nafarroako Aldundia

Gipuzkoa

Gipuzkoako partaideen artean garrantzitsuenetarikoa Oñatiko unibertsitatea dugu; honek Aita Santuari eskutitza idatzi zizkion latinez:

Urriaren 19ko datarekin unibertsitateko klaustrotik kantziler den Bartolome Ignacio de Elorriagak sinatzen du, eskutitza Francisco Antonio de Soraluze idazkariak idatzi zuen.

Eskutitz honetako hainbat gertakari eta datu oso interesgarriak dira: Inmaculadaren dogma eskatzen da eta 1619tik unibertsitate honek Inmaculadaren misterioa landu, aitortu eta zabaltzea zin egin zuela gogoratzen da.

Gehienbat jantsenisten hainbat hutsegite eta desbideraketen aurrean interesgarria gertatzen da beharrizan honen adierazpena.

Nafarroa

Aita Santuari egiten zaion eskari honetan Nafarroak partaidetasun zabalagoa du.

1732ko Urriaren 8an Nafarroako erreinuko Diputazioak berari dagokion eskaria egiten dio Aita Santuari kristautasun guztiarentzako kontsolamendu eta pozkario izan dadin: Diputazioaren izenean Beordegiko baroiak, Arberoako kondeordeak eta Pedro Matías de Herviti-k sinatzen dute.

Eliz instantziek ere eskari berbera zuzentzen dute: 1732ko Urriaren 7an horrela egiten du Iruñeako katedral kapituluak; ordezkari bezala Jose Fernandez Bazan, Emiliano García de Ibar eta Jose Vidal idazkariak sinatzen dutelarik. Melchor Angel gotzainak Sos-tik egiten du lau egun beranduago, Urriaren 11an.



Iruñeko kapitulo katedrala

Dogmen eskari mugimendu honetan ordena erlijioso eta monastegiak ere aurkitzen dira. Hauetariko bat Fitero dugu: bere abata, monastegia eta zister ordena guztia barne. Urriaren 23an bertako abata zen Ignacio de Hoyos y Veroyz-ek sinatuko zuen beste sinatzaileen artean. Urriaren 11eko Orreagako priorearen eskutitza ere aurkitu genuen.

Nafartar kaputxinoek ere eskari honetan parte hartu zuten, eskaria Azaroaren 15ean egin zen Tafallatik; Nafarroako kaputxinoen Bikario Probintziala zen Felix de Ablitas-ek sinatu zuen eskutitza.

Euskal Herriko inguruetatik

Dogmen eskari azalpen hauek Euskal Herri inguruan ere eman ziren; adibidez, euskal probintziek, Calahorrako elizbarrutian parte hartzen zuten. Aita Santuari eskari hau egiterakoan Santo Domingo de la Calzada-ko kapitulu katedrala (1732ko Urriaren 13), Calahorrako eliz katedrala (Urriaren 24) eta Logroñotik egiten duen Jose Espejo (Azaroaren 6), bere gotzaina ikusten dugu; hiri beretik egiten du Dominikoen probintzialak (Azaroaren 3); Najera-ko eliz parrokialeko batzarrak (Urriaren 19); Alfaro-ko kabildoak (Urriaren 23), etab.

Nafarroako ekialdean, San Juan de la Peña monastegiaren



Oñatiko Unibertsitatea

eskaria ere aurkitu genuen, beste batzuen artean.

Zenbaketa koxkor honetatik, Inmaculadaren dogmaren azalpenaren alde Euskal Herriak izan duen partaidetza ikus dezakegu: Dogma hau aldarrikatu baino 122 urte lehenago Euskal Herria munduko beste herri askoren aurrean joan zen honako egia honen debozioaren eta defentsaren azalpena emateko garaian: Maria, Jainkoaren Ama, pekatu guztietatik zeharo aske izan zela.

Julen Urkiza



Kalahorrako kapitulo katedrala